

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LEZAKO UDALA

#### **Bake epaile titularren eta ordezkoren lanpostuak betetzeko deialdia**

Bat etorri Botere Judizialaren Lege Organikoak 101. artikuluan eta hurrengoetan eta ekainaren 7ko 3/1995 Arautegiak, bake epaileenak, 5. artikuluan xedatutakoarekin, hamabost egun balioduneko epea ezarri da, iragarki hau ALHAOn argitaratu osteko egunetik aurrera, interesa dutenek eskaera aurkez dezaten udaletxeko idazkaritza nagusian, bake epaile titularren eta ordezkoren lanpostuak betetzeko Lezako bake epaitegian, lau urterako.

Hautagaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte, Botere Judizialaren Lege Organikoaren arabera:

- Adinduna izatea.
- Nazionalitate espainiarra izatea.
- BJLOren 303. artikuluan, 389. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako ezgaitasun edo bateraezintasunen bat ez izatea.

Eskabidearekin batera honako hauek aurkeztu behar dira: NANaren fotokopia eta zigor aurrekarien ziurtagiria.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da, bat etorri Bake Epaleei buruzko ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduak 5.1 artikuluan xedatutakoarekin.

Leza, 2022ko azaroaren 14a

*Alkatea*

*JOSÉ ANTONIO SUSO PÉREZ DE ARENAZA*